



Sopuertako Udala

Sopuertako Dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren artikulua batzuen edukiaren aldaketaren hasierako onespenera alegazioa aurkezteko emaniko 30 eguneko epea igaro da inolako alegaziorik aurkeztu barik; honenbestez, aldaketa horiek behin betiko egiten da, 2007ko azaroaren 29 an Udalbatza osoak hasieran onesteko hartutako erabakia betetzeko, eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialena» osoki argitaratzen da:

SUBENTZIOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

Lehen artikulua.-Xedea.

Ordenantza honen xedea da Sopuertako Kontzejuko Udalaren subentzioen emakida arautzen duten baldintzak arautzea, aukera berdintasunean eta udalerrian dauden pertsona fisiko edo juridikoentzat, elkarteentzat eta erakundeentzat, irabazteko asmorik ez badute eta bere egitasmoen edo jardueren helburua herri erabilera edo gizarte intereseko jardura sustatzea bada edo herri helburu bat bultzatzea.

Halaber, subentzioen onuradunak izan ahal izango dira irabazteko asmorik gabeko erakundeak, Sopuertan kokatuta ez badaude ere, udalerriantzat etekina dakarren herri erabilera edo interes orokorreko jarduerak gauzatzen badituzte, edo udalerriak parte hartzen duen eta etekina lortzen duen antzeko ezaugarrietako jarduerak gauzatzen badituzte. Sopuertako Udaleko Udalbatza Osoak, alde aurretik, subentzioen plan estrategikoan ordenantza ezarritu lortu nahi diren helburuak eta ondoreak zehaztu beharko ditu, lortzeko beharrezko epea, aurreikustekoak diren kostuak eta finantza-iturriak, beti ere aurrekontuko orekaren helburuak betetzea kontuan hartuta.

Diruz laguntzekoak izango dira urte naturalaren zehar egingo diren jardura programatuak. Kirol eta eskolako jarduerari dagokienez, bere jardueraren aldirako emango dira.

Diruz laguntzeko jarduerak, besteak beste, honakoak izango dira:

- Kultura motakoak.
- Kirolekoak.
- Gazteriaren gainekoak.
- Emakumearen gainekoak.
- Astialdi eta aisialdiko jarduerak.
- Irakaskuntzakoak.
- Musikakoak.
- Aisialdi eta astialdikoak.
- Udalak herri interesekotzat jotzen dituen beste jarduerak.

Bigarren artikulua.-Subentzioak arautzen dituzten oinarriak .

Ordenantza honetan aipatutako erregulazioa alde batera utzi gabe, laguntzak edo subentzioak emateko oinarriak arautzen dituen arauak, gutxienez, baldintza hauek beteko ditu:

- a) Subentzioaren helburuaren definizioa.
- b) Onuradunek bete beharko lituzketen baldintzak subentzioak jasotzeko, eta eskaerak aurkeztu behar diren modua eta epea.
- c) Subentzioa emateko prozedura.
- d) Subentzioa emateko irizpide objektiboak, eta dagokionean, horien zuhertasuna.
- e) Subentzioa bakoitzaren zenbatekoa edo hura zehazteko irizpideak.
- f) Subentzioa emateko agindua, ikuskapena eta ebazpena egiteko organo eskudunak eta ebazpena jakinaraziko den epea.
- g) Hala dagokionean, subentzioa behar bezala justifikatu dela bermatzeko kontabilitateko liburu eta erregistroak zehaztu.
- h) Pertsona onuradunak subentzioa emateko xedea bete dela eta jasotako fondoak horretarako erabili direla justifikatzeko daukan epea eta era.
- i) Organo emailearen alde eratzeko beharrezkotzat jotako berme-neurriak, eratzeko bideak



eta deuseztatzeko prozedura.

- j) Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera, baita, hala dagokionean, pertsona onuradunek aurkeztu beharko dituzten bermeen araubidea ere.
 - k) Subentzioa emateko aintzat hartutako baldintzen aldaketaren ondorioz ebazpena aldatzea eragin dezaketen inguruabarrak.
 - l) Estatuko nahiz Europar Batasuneko beste edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk edota nazioarteko erakundeek helburu berarekin emandako beste subentzioa, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.
 - m) Subentzioak ematean ezartzen diren betebeharren balizko ez betetzeak neurtzeko irizpideak. Irizpide hauek erabiliak izango dira onuradunak hartu behar duen azken subentzioa zehazteko, edota azkenean itzuli behar duen dirua zehazteko, gainera, aipatu irizpideek proportzionaltasun printzipioa jarraituko dute.
- Laguntza edo subentzioa mota bakoitzeko neurri arautzaileak «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

Hirugarren artikulua.-Onuradunak.

Honakoek eskatu ahal izango dute subentzioa:

1. Eusko Jaurlearitzako Elkartearen Erregistroan edo Elkartearen Udal Erregistroan legez inskribatuta dauden elkarteek edo azken erregistro horretan inskribatzeko eskatu duten elkarteek. Xede horretarako, aisialdi, kirol eta antzeko erakundeek Elkartearen Udal Erregistroan inskribatzeko eskatu beharko dute.
2. Udalerriko ikastetxe publikoek eta itunpeko ikastetxeek.
3. Udalerrian egoitza duten irabazteko asmorik gabeko erakundeek, baldin eta Udalerriantzat onura dakartzaten jardueren edo ekintzen egitasmoak edo egitaratuak aurkezten badituzte.
Ez dira onuradun izango subentzioei buruzko azaroaren 17ko 38/03 Lege orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren inguruabarraren bat biltzen duten pertsonak edo erakundeak. Ezin izango dira onuradun izango subentzioei buruzko azaroaren 17ko 38/03 Lege orokorraren 11. artikuluko 3. atalaren bigarren paragrafoan aurreikusten diren taldeak, baldin eta bere kideren batek aurreko debekuren bat biltzen badu.
4. Horrez gain, onuradun izaera izango dute pertsona fisikoen edo juridikoen elkarteek, publikoek zein pribatuek, ondasun elkarteek edo bestelako batasun ekonomiko edo ondare banatuak, esaterako jai-batzordeak edo antzekoak, irabazteko asmorik gabe eta nortasun juridikoa izan gabe ere, subentzioa emateko arrazoia ematen duten proiektu edo jarduerak egiteko gai badira. Nortasunik ez duten eta publikoak zein pribatuak diren pertsona fisikoen edo juridikoen taldeak direnean, kideak nortzuk diren jakinarazi beharko dio Udalari eta taldeko ordezkari edo ahuldun bat izendatu beharko da, onuradun legez taldeari dagozkion betebeharrak beteko dituen.
5. Udalerrikoak ez izanik ere, jarduerak udalerrian edo eremu orokorrean egiten dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek, elkarte publikoek edo pribatuek, jarduera horiek kultur edota gizarte interesekoak badira.

Laugarren artikulua.-Hasiera.

Subentzioak emateko prozedura ofizioz hasten da beti.

Ofizioz beti hasiko da Udalbatza Osoak onetsitako deialdiaren bidez, kapitulu honetan ezarritakoaren arabera deituriko subentzioak emateko prozedura garatuko duena, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen printzipioez bat etorriz, derrigorrez honako edukia izango duena:

- a) Hala badagokio, oinarri arautzaileak ezartzen dituen xedapena eta argitaratuta dauden aldizkari ofiziala adieraztea, salbu eta, bere zehaztasunaren arabera, oinarriak deialdian bertan sartzen badira.
 - b) Subentzioa zein partidaren kargura egingo den eta emango diren subentzioen gehienezko kopurua edo, horren ezean, subentzioen kopuru balioetsia.
- Erakunde publikoetatik jasotako subentzioak egitasmoaren edo jardueraren kostea baino handiagoak badira eta subentzioa horiek bateragarriak badira, gerakina eta berandutzako interesak itzuli beharko ditu, eta bidezko justifikazioarekin batera ordainketa-gutunak aurkeztuko ditu. Gerakinaren itzulera erakunde emakidadunen alde egingo da erakunde bakoitzak emaniko subentzioen proportzioaren arabera.



Dena dela, administrazioa bada finantza-gerakinaz ohartarazten dena, gerakinaren zenbatekoa itzultzeko eskatuko du administrazioak emaniko subentzioaren toperaino.

- c) Subentzioa emateko xedea, baldintzak eta helburua.
- d) Subentzioa norgehiagokako araubide baten bidez ematen dela adieraztea.
- e) Subentzioa eskatzeko betekizunak eta betekizun horiek egiaztatzeko era.
- f) Prozedura izapidetu eta ebazteko erakunde gaidunak adieraztea.
- g) Eskabideak aurkezteko epea.
- h) Ebatzi eta jakinarazteko epea.
- i) Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiri eta argibideak.
- j) Hala balegokio, eskabideak berriro aurkezteko aukera, Ordenantza honen artikuluan xedaturikoaren arabera.
- k) Ebazpenak administrazio bideari amaiera ematen dion adieraztea, eta horrela ez bada, errekurtsioa zein erakunderen aurrean jarri behar den.
- l) Eskabideak baloratzeko irizpideak.
- m) Jakinarazi eta argitaratzeko bidea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak, azaroaren 26koa, bere 59. artikuluan aurreikusten duena betez.

Bosgarren artikulua.-Subentzioaren kopurua edo zenbatekoa

- a) Subentzioak borondatezkoak eta aldi baterakoak dira; subentzioa ematea ez da aurrekaria ondorengo eskaeretan ere emateko.
- b) Ez da subentziorik emango, subentzioaren zenbatekoa, berez edo beste laguntzekin edo subentzioekin batera, diruz laguntzekoa den jardueraren kostea baino handiagoa bada.
- c) Oro har:
 - 1. Udalak aukera izango du, bere interes bereziak horrela aholkatzen duenean, proiektuak diruz laguntzeko, egokituz jotzen duen portzentajea eta moduan.
 - 2. Ezin izango da emaniko subentzioa baino gehiago eskatu edo subentzioa berrikusteko, salbu eta, Udalak eta Kultura Kontseiluak eginiko kalkuluaren arabera, horretarako salbuesenezko inguruabarrak ematen badira.
 - 3. Udalak diruz lagungarriak diren jarduerak garatzeko, urtean gordetzen dituen baliabideak Udalbatza Osoak urtean onesten duen aurrekontuan ezarritako partiden kargura finantzatuak dira. Kopurua sailen arabera banatuko da urte bakoitzerako finkatu diren helburuen plangintza eta definizioa kontuan hartuta, kasuan kasuko doikuntzen kalterik gabe.
 - 4. Udalak diruz lagundutako jardueren emaitza ebaluatuko du eta emaitzak Kultura Kontseiluari aurkeztuko dizkio, eta balorazio hori beste subentzioa batzuk emateko edo ukatzeko informazio irizpidetzat har daiteke.

Seigarren artikulua.-Eskabidea eta dokumentazioa.

Eskabideak pertsona fisikoaren edo pertsona juridikoaren taldearen, elkartearen, erakundearen edo entitatearen Buruak edo ordezkariak izenpeturiko eskaera-orrian aipatu Buruaren edo ordezkariaren NANaren fotokopiarekin batera. Halaber, eskaera-orriarekin batera, ezinbestez, dokumentazio hau aurkeztuko da:

- a) Itsatsitako inprimakiak dagokionaren arabera.
- b) Elkartearen gaineko informazio orokorra: baliabideak, gastuen eta sarreraren aurreikuspena, urterako programaturiko jardueren zerrenda eta subentzioaren xedekoak diren jardueren eta egitasmoen laburpenaren orria.
- c) Hala balegokio, Erakundeko Idazkariaren ziurtagiria buruaren oniritziarekin, azken batzarraren arabera, Zuzendaritza-Batzordearen berritzearen edo berrestearen inguruan.
- d) Hala balegokio, Erakundeko Idazkariaren ziurtagiria buruaren oniritziarekin, erakundearen bazkideen kopurua agertuko duena.
- e) Aurreko urtean eginiko mota guztietako jardueren ebaluazio-txosten zehatza.
- f) Udalari estatutuak aurkeztu ez dizkien edo estatutuetan aldaketaren bat sartu duten erakundearen estatutuen ale bat.
- g) Subentzioaren xedekoa denaren egitasmo zehatza.
- h) Beste administrazio, erakunde publiko edo pribatuei eskatu dizkieten subentzioen zerrenda.
- i) Egitasmoaren sarreraren eta gastuen zerrenda zehatza.
- j) Eskaturiko subentzioa hiru mila edo etorkizunean ezartzeko den estatu edo autonomia legeriak zehaztuko duen zenbatekoa baino handiagoa bada, zerga betebeharrak eta Gizarte



Segurantzarekikoak eta zerga egoitza betetzen duenaren egiaztagiria. Hiru mila euro baino txikiagoa bada, adierazpen erantzulea nahikoa izango da.

Zazpigarren artikulua.-Eskabideak aurkeztea eta epea.

Eskabideak Udaletxeko erregistro nagusian aurkeztuko dira, elkartearen ordezkariak izenpetuak, urteko deialdian adieraziko den egunaren 13:30ak arte eta eskabidearekin batera seigarren artikuluan zehazten diren agiri guztiak aurkeztuko dira.

Eskariak ez badira osorik aurkezten edo eskaturiko agirietako bat falta bada, eskaria egin duen pertsonari eskatuko zaio, hamar (10) egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan, eta manuzko agiriak aurkez ditzan; eta ohartaraziko zaio hala egin ezean eskaria ezetsizat emango dela eta beste izapiderik gabe artxibatuko dela.

Zortzigarren artikulua.-Instrukzioa.

Subentzioen emakidarako prozedura arrunta lehiakortasuneko aldiberekotasun araubidearen bidez izapidetuko da. Lehiakortasuneko aldiberekotasuntzat joko da subentzioen emakidarako prozedura aurkeztutako eskaeren konparazioaren bitartez, eta horien arteko lehentasuna ezarri ondoren, beti ere oinarri arautzaileetan eta deialdian aurretik ezarritako balorazio irizpideen arabera; eta eskuragarri dagoen kreditua kontuan hartuta deialdian ezarritako gehieneko muga oinari hartuta, aipatutako irizpideak ezarrita, balorazio handiena lortu dutenak esleitzea.

Ondorengo subentzioak zuzenean eman ahal izango dira:

- a) Aurrekontu arruntean bere izenarekin aurreikusten direnak, hitzarmenetan eta subentzioa hauen arautegian jasotako baldintzen arabera.
- b) Emakida edo zenbatekoa Sopuertako Udalarari ezarri zaionean legezko arau baten bidez. Subentzioa horiek bere arautegiaren arabera ezartzekoa den emakida-prozedura jarraituko dute.
- c) Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomikoa edo humanitarioa egiaztatzen duten beste subentzioak edo egoki bidezkoturiko beste batzuk, deialdi publikoa deitzea zaila denean.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, Kulturako Zinegotziak, Kultura Kontseiluak lagunduta, eskabideak aztertu eta baloratuko ditu. Kultura Kontseiluak emakidarako behin-behineko proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamena interesatu guztiei jakinaraziko diete eta hamar (10) egun balioduneko epea emango diete alegazioak aurkezteko. Aurrekoa gorabehera, emakidarako proposamena udaleko Iragarki-taulan jendaurrean jarriko da.

Hala badagokio, interesatuek aurkezturiko alegazioak aztertuta, Kultura Kontseiluak subentzioen emakidarako behin betiko proposamena, egoki arrazoituta, Udalbatza Osoari helaraziko dio. Proposamen horretan subentzioa ematen zaion eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda agertuko da eta zenbatekoa, ebaluazioa eta ebaluazio horretarako jarraituriko balorazio irizpideak zehaztuz.

Subentzioak emateko kontuan hartuko diren irizpideen artean ondorengoak egongo dira:

- a) Garatuko diren aktibitateen interes maila edo biztanleriaren sektore ezberdinetan izango duen eragina.
- b) Aktibitatearen interes orokorra, udalerrria udalerritik kanpo ezagutarazteko.
- c) Taldearen aktibitatearen kalitatea eta teknika hobetzeko ahalegina.
- d) Erakundeen edo elkarten partaidetza Kultura Kontseiluan.
- e) Euskararen erabilera egingo diren aktibitateetan.
- f) Programa edo proiektuaren hezkuntza eta gizarte-kultura arloetako errentagarritasuna.

Bederatzigarren artikulua.-Ebazpena.

Subentzioen emakida Sopuertako Udalbatza Osoak hartutako erabaki arrazoituaren bidez egingo da bi hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita. Subentzioa ematen zaion eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda agertzeaz gain, ebazpenean beren beregi adieraziko da gainerako eskabideen gaitzirik zuzena.

Subentzioaren diru zenbatekoa egutegiko hamabost (15) eguneko epean ordainduko da, Udalbatza Osoak hartzen duen erabakiaren egunetik kontatzen hasita.

Nolanahi ere, diruz lagunduriko jarduera ekitaldi bakarra denean horrela ordainduko da:

Subentzioaren %60 egutegiko bost (5) eguneko epean, Udalbatza Osoak erabakia hartzen duenetik zenbatzen hasita eta gainontzeko %40 subentzioaren xedekoak diren egintzak egin



eta egutegiko hamabost (15) egun igaro eta gero.
Subentziorako ebazpenek ez diote amaiera ematean administrazio bidari; beraz, birjarpenezko errekurtsua jar daiteke. Errekurtsua ebazteko Kultura Kontseiluari kontsultatuko zaio.

Hamargarren artikulua.-Emaniko subentzioen publizitatea .

Sopuertako Udalak emandako subentzioak argitaratuko ditu «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta iragarki-oholtzan, deialdia, egitaraua eta ezarri zaien aurrekontuko kreditua, onuraduna, emandako kopurua eta subentzioaren xedea edo xedeak adierazita.

Ondorengo kasuetan ez da beharrezkoa izango subentzioaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea:

- a) Subentzioak esleipen nominala dutenean aurrekontu arruntean.
- b) Onuradun jakin baten alde emandako subentzioaren zenbatekoa lege-mailako arau baten arabera ezartzen denean.
- c) Banaka emandako subentzioen zenbatekoa 3.000 euro baino gutxiagokoa denean. Kasu honetan, oinarri arautzaileek beste prozedura batzuen erabilera aurreikusi beharko dute, bere ezaugarri bereziak, zenbatekoa eta kopurua kontuan hartuta, subentzioen onuradunen publizitatea bermatzeko.
- d) Subentzioaren xedearen ondorioz, onuradunaren datuak argitaratzea pertsona fisikoen begirune eta orearen babes, norbera edo familiaren intimitatearen kontrakoa denean; beti ere, maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak, orea, norbera eta familiaren intimitatea eta norberaren irudiaren eskubidearen babes zibilekoa, ezarritakoaren arabera edo Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedaturikoaren arabera eta bere arautegi arautzailean aurreikusi bada.

Hamaikagarren artikulua.-Onuradunaren betebeharrak.

Honako eskakizun hauek bete beharko dituzte ordenantza honetan araututako onuradunek:

1. Emandako subentzioa egutegiko hamar (10) eguneko epean onartzea. Subentzioa ematen zaiola jakinarazten duen idazkia jasotzen duen biharamunetik hasita. Ez badio uko egiten subentzioa horri, ulertuko da onartzen duela. Subentzioaren emakidari uko egiten zaiola pertsona fisikoen edo pertsona juridikoen, elkartearen, erakundearen edo entitatearen Buruak edo ordezkariak egin beharko du subentzionarioari uko egiten diola argi eta garbi adierazten duen idazkiaren bidez.
2. Xedea betetzea, proiektua betearaztea, jarduera egitea edo subentzioaren emakidaren oinarriaren araberrako jarrera izatea.
3. Subentzioa eman duen erakundearen edo, hala denean, erakunde laguntzailearen aurrean egiaztatzea eskakizunak eta baldintzak betetzen direla, baita jarduera egitea eta subentzioa emateko edo izateko helburua betetzea ere.
4. Xede berbererako beste erakundeen subentzioak lortu direla ezagutu bezain pronto jakinaraztea, Beti ere jasotako zenbatekoa zertan gastatu den bidezkotu baino lehen. Subentzioaren arautegi arautzaileak zehaztuko du, xede berbererako, edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk, naziokoa, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundekoa izan, emandako subentzioa, laguntza, diru-sarrerak eta baliabideak jasotzeko bateragarritasuna eta bateraezintasuna.
5. Kulturako Zinegotziak eskatuta, Udalak egiaztatzeko egingo dituen jarduerak onartzea.
6. Kontabilitate liburuak, dilijentzia eginda duten erregistroak eta behar bezalako auditoretza duten gainerako agiriak izatea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakioken merkataritza eta arlokako legeriaren arabera, baita subentzioen oinarri arautzaileetan eskatzen diren berariazko erregistroak eta kontabilitate orriak ere, egiaztapena eta kontrola egiteko ahalmenak egoki betetzen direla bermatzeko.
7. Egitarauaren garapenerako gertutako esku-egitarau, kartel, argazki, argitalpen edo beste edozelako agiri grafikoren aleetan jarduera hori Sopuertako Udalak babesa eman duela argi eta garbi adieraztea.
8. Jasotako funtsak aplikatzeko egiaztagirak gordetzea, elektronika agiriak barne, egiaztapen eta kontrolerako jarduketak egin daitezkeelako horien gainean.
9. Jasotako funtsak itzultzea hamaikagarren artikuluan ezarritakoari jarraiki.
10. Aktibitate eta ikuskizun publikoak antolatzeko indarrean dagoen arautegia betetzea (erantzukizun zibileko aseguruak, joko eta ikuskizunen arautegia, guneko publikoaren erabiltzeko udal baimena eta abar).



11. Subentzioaren onuraduna pertsona juridikoa bada, indarreko xedapenek zerga eta Gizarte Segurantzaren gainean ezarrita dituzten betekizunak egunean dituela egiaztatu beharko du dagokion egiaztapenen bidez.
12. Subentzinoa berria eskatu baino lehen, subentzioaren xedea den aktibitatearen ondorioz eginiko gastuak justifikatzea hurrengo artikuluan deskribatzen den moduan.
13. Hala badagokio, egingo diren aktibitateen egokitasunaz eta horiek martxan jartzeko beharrezko baldintza teknikoek, udal teknikariek adierazten dituzten gomendioak kontuan hartu beharko ditu.
14. Beharrezkoa izatekotan, diruz laguntzen den aktibitatea ondo egiteko, Ikuskizun Publiko eta Jolas-Jardueren azaroaren 10eko 4/1995 Legean eta Ikuskizun Publiko eta Jolas-Jarduerak egiteko eskatzen diren Erantzukizun Zibileko Aseguruak araupetzen dituen abenduaren 22ko 389/1998 Dekretuan ezartzen diren baimenak eskatu beharko ditu.
15. Aktibitatea herri bideetan egiten bada edo herri erabilerako gune irekiak betetzen baditu, egitura desmuntagarri eta horiek gabe, erantzukizun zibileko aseguru-poliza kontratatu dela egiaztatzen duen aseguru-etxe edo aseguru-arterkaritzaren egiaztapena aurkeztu beharko du, udalerrriaren biztanleriaren arabera, kontuan hartuta 25.000 biztanleko udalerrrien eskalan dagoela.
16. Subentzioaren onuradunak bere gain hartuko du aktibitateak egitetik edo ez egitetik sor daitekeen erantzukizun osoa nahiz eta berari egoztekoak ez diren arrazoiengatik izan.

Hamabigarren artikulua.-Subentzioaren erabilera bidezkotzea .

Subentzioen onuradunek subentzioaren xedekoa den aktibitatea gauzatu dela justifikatu beharko dute Udalaren aurrean, dokumentazio hau aurkeztuz:

- a) Aktibitatea gauzatzean sortu diren gastuen fakturak edota frogagiriak aurkeztea, gutxienez emaniko subentzioaren kopuruaz. Faktura edota frogagiri horiek subentzioaren emakidaren aldikoak izan beharko dira.
- b) Diruz lagunduta jarduerarako eginiko egitarauen, argitalpenen, kartel iragarleen eta edozein dokumentazio grafiko edo idatzizkoren ale bat.

Emaniko subentzioaren erabileraren justifikazioa aipaturiko moduan egingo da, gehienez, hiru (3) hilabeteko epean, jarduera egiteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita, Ordenantza honen lehen artikuluan xedaturikoaz bat etorritik.

Hamahirugarren artikulua.-Subentzioak itzultzea.

Sopuertako Udalak justifikatu ez diren zenbatekoak edo gaizki justifikaturikoak itzultzeko eska dezake; zerga zorraren izaera izango du eta Diru-bilketaren Araudiaren eta bere prozedura-araubidearen menpe egongo da.

Subentzioen Legearen arautegiaren 91, 92 eta 93. artikuluetan itzultzeko xedaturiko prozedura ezarriko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Emaniko subentzinoa Sopuerta udalerrian herriko jaiak antolatu edo egiteko bada eta subentzioaren onuraduna egoitza Sopuertan duen eta Elkarteen Udal Erroldan izena emanda duen Jai Elkarte edo Batzordea bada, Udala, ez bada kontrakoa adierazten, soilik honako gastu hauen kargu egingo da:

1. Argi hartuneak Iberdrolari ordaintzea.
2. Barietateko ikuskizun, festa, kalejira, musika kontzertu, dantzaldi eta abar egiteagatik ezarritako tarifa, Autoreen Elkarte Orokorrari ordaintzea.

Horren ondorioz, aipatu aktibitatea egiteak sortzen dituen beste gastuak subentzioaren onuradunak hartuko ditu bere gain beren beregi eta Sopuertako Udalak ez du inoiz era subsidiarioz egingo, salbuespeneko kasuetan Udalak kontrakoa adierazten ez badu.

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den biharamunean sartuko dira indarrean.

I. ERANSKINA.

Jai-batzordeetarako subentzioen eskabidea.

Sopuertako Kontzejuko Alkate jaunari.

Sopuerta, 2007ko azaroaren ____a.

Honen bidez, behean aipaturiko Jai-batzordea ordezkatzuz, Sopuertako Kontzejuko Udalarari subentzinoa eskatzen diot; horretarako, beharrezko dokumentazioa aurkezten dut.

Batzordearen izena: _____.

Helbidea: _____.



Telefono zk.: _____.
Batzordea osatzen duten pertsonak:
Izena _____.
NAN _____.
Jaiotza-data _____.
Ordezkarria: _____.
Banku kontuaren zenbakia: _____.
Sinadura _____.
(Ikus irudia PDFn).

II. ERANSKINA.

III. ERANSKINA.

KULTURA KONTSEILUA.

Kultura Kontseilua Sopuertako Udaleko Hiri Partaidetzako organo osagarria da. Botere publikoei dagokie auzokide guztien parte-hartzea bultzatzea politika, ekonomia, kultura eta gizarte esparruetan. Partehartze hori politika ordenaren eta gizarte bakearen oinarria den nortasunaren garapen askearen tresna lagungarria baita. Hiritarren gai publikoetan, zuzenean edo ordezkarien bidez, parte hartzeko eskubidea esparru guztietan sustatu eta adierazi behar dira, bai pertsonak banan-banan kontuan hartuta, bai pertsonak parte hartzen duten izaera ezberdineko taldeak kontuan hartuta. Toki Araubideko oinarrien Legeak (apirilaren 2ko 7/85) eta Antolamendurako Araudiak (2568/86 Errege Dekretua) udal bitzitza publikoan hiritarren parte-hartze horren zenbait arlo araupetzen dituzte, era berezi batez, auzokideen parte-hartzea Sektoreko Kontseiluetan, elkarte orokor edo sektorialen bitartez, kontseiluaren espezializazioa eta ordezkari-tza kontuan hartuta.

Araudi honen xedea den Kontseilua udal antolamenduaren erakunde osagarria da eta bere betekizuna aholkuak, informazioa eta proposamenak ematea da, erabakiak hartzea beren beregi Legeak ezarritako erakunde ordezkari-erakunde dagokiela kontuan hartu gabe. Arau honetan ere auzokideen elkarte eta taldeek Udal Erroldan izen emateko era araupetzen da, kontseilu honetan parte hartzeko betekizun bezala. Elkarte eta talde horiek era demokratikoz jardun behar dute, bai barne araubidean, bai kanpoko harremanetan.

ATARIKO KAPITULUA:

1. artikulua.-Kontseiluaren kontzeptua, izaera eta betekizun nagusiak.

Araudi honetan araupetzen den kontseilua Sopuertako Udalean parte hartzeko erakunde osagarria da, udalerraren eremuan gizarte, kultura eta kirol jarduera garatzen duten auzokideen elkarte eta taldeek udalerriko gobernu organoek erabakiak hartzeko orduan bere lankidetzara eman dezaten.

Partaidetzarako organo horien xedea, dagokion gaiarengatik, aktibitatearen sektorearekin zerikusirik duten aholkuak, txostena eta proposamena ematea izango da. Kultura Kontseiluaren eginkizunak honako hauek izango dira:

- Arlo honekin zerikusia duten gaiei buruzko ekimenak, iradokizunak eta proposamenak aurkeztea, dagokien Udal Sail, Erakunde edo Elkarrekin aztertu dezaten.
- Arlo honekin zerikusia duten gaiei buruzko azterlanak, programak eta proiektuak gauzatzeko lankidetzara eta aholkularitza ematea.
- Udalaren eskutik informazioa jasotzea eta informazio hori elkarrekin artean zabaltzea.

2. artikulua.-Antolamendua.

Kultura eta Hiri Partaidetzako Kontseiluaren burua Alkatea edo berak izendatzen duen zinegotzia izango da eta honako bokal hauek osatuko dute:

- Udalerraren eremuko auzokideen elkarte edota talde bakoitzaren bi ordezkari, Araudi honek aurreikusten duen Elkarrekin Udal Erroldan izena emanda badute.
- Udal talde politiko bakoitzak izendatzen duen zinegotzia.
- Kontseiluaren Idazkaritza udal plantillako pertsona baten esku egongo da, Buruak izendaturikoa.

Edozein auzokidek parte hartu ahal izango du, beti ere Alkateari edo Kulturako Ordezkariari zuzenduriko idazki baten horrela eskatzen badu; idazki horretan azaltzekoa edo eztabaidatzekoa den gaia adierazi behar da.

3. artikulua.-Bilkurak.

Kontseiluaren bilerak urteko bi hilabete behin izango dira. Horrez gain, ez ohiko bilerak egin ahal izango dira, premiazkoztat edo egokitzat irizitakoan. Kontseiluburuak egingo du ez



ohiko bileretarako deia bere ekimenez, edo zinegotziak ez diren kontseilu-kideen heren batek, behintzat, hala eskatuta. Kontseilua, bilkura berezian, Udal Aurrekontuaren proiektuaren gainean informatua eta kontsultatua izango da. Hurrengo ekitaldirako bileren egutegiaren aurreikuspena, Kontseiluaren urteko azken bilkuran erabakiko da.

4. artikulua.-Quoruma.

Kontseiluaren bilerak baliozkoak izateko, ezinbestekoa izango da zinegotziak ez diren kideen herena (gutxienez) eta kontseiluburua bertan izatea. Quorum hori betetzen ez bada, deialdia indarrrik gabe geratuko da.

5. artikulua.-Deialdia.

Bileraren deialdia Kontseiluburuak egingo du. Kontseilu-kideek aurreko hamabost eguneko epean aurkeztutako proposamenak kontuan hartuta osatuko du aztergaien zerrenda. Bilera izan baino hamabost egun lehenago egingo du deialdia. Ez ohiko bileren kasuan, eskabidea egiten denetik bilera egiten denera ezin izango dira hogeit hamar egun baino gehiago igaro. Bilera izan baino hamabost egun lehenago egingo du deialdia.

6. artikulua.-Eztabaidak.

Kontseiluburuak antolatu eta bideratuko ditu Kontseiluaren eztabaidak eta bileren antolamendu ona bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu.

7. artikulua.-Hizkuntzak.

Kontseiluaren bileretan bertaratuek euskaraz edo gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute.

8. artikulua.-Bileran parte hartzea.

Aholkularitza tekniko egokirako, bileretan parte hartu ahal izango dute, kontseiluburuak deituta edo kontseilu-kideen heren batek, zinegotziak izan edo ez izan, hala eskatuta, zinegotzi-ordezkariek eta udal langileek.

9. artikulua.-Proposamenak eta aholkuak.

Txosten, ekimen-proposamen, informazio-eskari, aholku edo antzekoen bidez helaraziko zaizkie Kontseiluak hartutako erabakiak aginpidea duten Udaleko gobernuko organoei.

10. artikulua.-Barne arauak.

Kontseiluak lantaldeak eratu ahal izango ditu eta lantalde horien bileren egutegia eta ordutegia erabaki.

11. artikulua.-Bilkura lekuak eta aktak.

Bilerak Udalaren lokaletan egingo dira. Idazkariak akta egin eta hamabost astegunetan buruan bidaliko die kontseiluko kideei. Kontseiluak izango duen hurrengo bileran onartuko du aurreko bilerako akta.

Bigarren kapitulua.

ELKARTEEN UDAL ERROLDA.

12. artikulua.-Izena eman dezaketen elkarteak.

Araudi honetan ezartzen den kontseiluan ordezkariak izateko, ezinbestekoa izango da egoitza eta jarduketaren eremua udalerrian duten auzokideen elkarte eta taldeek Sopuertako Udaleko Elkartearen Udal Erroldan izena emanda izatea eta beren-beregi adieraztea kontseiluan parte hartu nahi dutela. Halaber, Errolda horretan izena emanda izatea eskatzen da edozein udal subentziora edo laguntza eskatzeko.

13. artikulua.-Inskripzio-datuak.

Izen ematea egiteko, elkarteek honako datu hauek (II. Eranskina) aurkeztu beharko dituzte:

- Elkartearen bilkura eratzailaren akta.
- Elkartearen estatutuak edo araudia.

- Elkartearen Errolda Orokorrean izena emanda duela egiaztatzen duen agiria.

Elkarteek beti izan beharko dute Gobernu organoen eraketa eta kideen kopurua jakinarazita eta eguneratuta Udal Erroldan. Era berean, izena eman duten elkarteek aurrekontua eta urteko aktibitatearen egitaraua aurkeztu beharko dituzte eta baita aurrekontuaren likidazioa



eta gauzatu diren aktibitateen memoria ere.

Izen ematea egiteko, auzokideen taldeek honako datu hauek (I. Eranskina) aurkeztu beharko dituzte:

- Jarduketa esparrua.
- Relación nominal de las personas que la integran.

El incumplimiento de estas obligaciones dejará en suspenso la inscripción en el Registro y podrá determinar la baja en el mismo.

Capítulo tercero.

OTRAS RELACIONES.

Artículo 14.-Relaciones políticas.

Sin perjuicio de su presencia en el Consejo regulado en este Reglamento, las Asociaciones Cívicas podrán mantener relaciones directas con los órganos de Gobierno Municipal así como con los Grupos Políticos Municipales y recibir de los mismos información relativa a su círculo de intereses.

Artículo 15.-Promoción asociativa.

En la medida en que lo permitan los recursos presupuestados, el Ayuntamiento concederá a las asociaciones cívicas subvenciones destinadas al desarrollo de sus programas y actividades, prestándoles la ayuda técnica que proceda, así como, en su caso, la cesión de locales u otros bienes municipales.

Asimismo el Ayuntamiento promoverá y posibilitará la participación de las Asociaciones y Colectivos Ciudadanos en la programación de la actividad de los Centros Cívicos.

DISPOSICION FINAL.

En todo lo no previsto en el presente Reglamento se estará a lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local y en el Reglamento de Organización, funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales (Real Decreto 2568/1986).

DISPOSICION ADICIONAL.

El artículo 228.1. del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales (Real Decreto 2568/1986) atribuye al Alcalde la competencia en orden a la posible intervención en las sesiones del Pleno Municipal de Asociaciones de ciudadanos para exponer su parecer en relación con algún punto del orden del día en cuya previa tramitación administrativa hubiesen actuado como interesado dispone lo siguiente:

Cuando sobre alguno de los asuntos previstos en el orden del día de las sesiones plenarias del Ayuntamiento, alguna Asociación y Colectivo Ciudadano directamente afectada por el asunto, no haya tenido oportunidad de exponer su parecer, bien por escrito en el expediente administrativo, el Alcalde, previa petición por escrito, autorizará a un representante de aquella asociación para exponer su punto de vista sobre el mencionado asunto en la propia sesión plenaria y antes de proceder a la votación correspondiente. Lo que se pone en general conocimiento a los oportunos efectos legales.

Sopuertan, 2008ko otsailaren 28an.-Alkateak.